

LEHEN AUKERA 2014

1.- Zentroek egin beharreko jarduna

a) Enpresekin

- Haiekin harremanetan jarri eta programaren ezaugarriak azaldu, EHAAn eta/edo Ikaslanek egindako gidaliburuan jasotakoaren arabera.
- Aurrera jarraitzen duten enpresei lagundu II. eranskina betetzen eta urriaren 3rako Lanbideri aurkeztu beharreko dokumentuak prestatzen.
- Enpresak, laguntzak jasotzeari dagokionez, Lanbideren adostasuna duela jakin ostean aplikatiboan erregistra dezake eskaintza. Gogoan izan behar da 7 egun daudela horretarako; beraz, garrantzi handikoa da IV. eranskina Ikaslani helaraztea 7 eguneko epe horretan.

b) Ikasle ohiekin

- Ikasle ohiei informazioa eman, oro har, hasierako prestakuntza zein etengabeko prestakuntza jasotakoak aintzat hartuta, eta laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak jakinarazi.
- Lanbiden izena emanda egotea derrigorrezkoa dela jakinarazi, bai eta Gazte Bermearen Sistemari izena emanda egotea ere, hala badagokie (25 urtetik beherakoak badira, edo, desgaitasunen bat izanez gero, 30 urtetik beherakoak badira).

c) Ikaslanekin

- Ikaslani jakinarazi eskaintza zehatz bat dagoela, edo enpresari esan, Ikaslanekin harremanetan jar dadin.
- Erregistratutako eskaintzen berri izan ondoren, eskaintza jakin bati erantzuteko gaitasuna duten ikasleen curriculumak bidali, Ikaslanek helaraz diezaion eskaintza hori kudeatzeaz arduratzen den zentro laguntzaileari; horrenbestez, sistema informatikoan sartu eta enpresari iritsiko zaio, hautaketa egin dezan.

-

2.- Enpresek egin beharreko jarduna

- Informazioa jaso eta aztertu: haietzako egokia ote den, ezarritako baldintzak betetzen ote diren...
- Laguntzetan interesa izanez gero, Aginduaren II. eranskineko dokumentazio guztia bete, laguntza-eskabidea prestatu, eta urriaren 3a baino lehen entregatu.
- Lanbideak laguntza emateari buruzko adostasuna adierazi ondoren, IV. eranskina bete eta Ikaslani jakinarazi, eskaintza Lanbideren aplikatiboan sar dezan. 7 eguneko epea

dago eskaintza erregistratzeko, diru-laguntza onetsi dela jakinarazitako egunetik zenbatzen hasita.

- Curriculumak jaso eta hautaketa egin.
- Praktikaldiko lan-kontratua azaroaren 21a baino lehenago sinatu.
- Kontratu hori sinatu ondorengo 10 egunetan lanbideri jakinarazi.
- Laguntzaren % 53,6 kobratu.
- Kontratua amaitzean, amaierako memoria entregatu uztailaren 31 baino lehenago (6 hilabeterako kontratuetan) edo abenduaren 15a baino lehenago (12 hilabeterako kontratuetan).
- Gainerako % 46,4 kobratu.

3.- Gazteek egin beharreko jarduna

Lanbiden erregistratu, eta Gazte Bermearen Sistemari izena eman, hala badagokio (derrigorrezkoa 25 urtetik beherakoentzat, edo 30 urtetik beherakoentzat, desgaitasunen bat duten gazteen kasuan).

Zentrora jo, zer egoeratan dauden jakin dezaten.

Eskatzen diren baldintzak erreparatu, betetzen dituztela ziur jakiteko.

4.- Ikaslanek, zentro laguntzaile gisa, egin beharreko jarduna

- Zentro laguntzaile izateko eskaera egin.
- Zentroi emateko informazioa prestatu, haiek enpresei eta ikasleei helarazteko.
- Zentroekin bilera egin, beharrezkoa dela ikusiz gero.
- Lanbidek emandako informazioa jaso irailaren 24an.
- Zentroen bidez enpresek helarazitako eskaintzak erregistratu.
- Kudeaketarako laguntza eskatu.
- Eskaintzak eta ikasleak uztartu.